

 PASAIKO UDALA INFORMATIKA	Espediente zk.: N.º expediente: 2018WKOM0002	Espediente moldagarria Expediente adaptable	DEKRETU ZK. / N.º DECRETO 2018/416	
	Sarrera-erregistroa / Registro de entrada		- 000000	
	Titularra: / Titular:		Pasaiako Udala	
	Ordezkarria: / Representante:			
	Gaia: / Asunto: Kode irekiko softwarea ezartzea			

EBAZPENA

ZIOEN AZALPENA

Informatika askearen mugimenduaren arabera edozein pertsonak edo erakundek, inongo murrizketa tekniko, legal edo ekonomikorik gabe, aukera izan beharko luke softwarea (ordenagailuetan erabiltzen diren programa eta aplikazioak), hardwarea (ordenagailuen osagai fisikoak) edo informatikako dokumentazioa nahieran erabili, aldatu edota partekatu ahal izateko. Informatika askearen abantailen artean hauek azpimarra daitezke:

- Edozein pertsonak edo erakundek libertate osoa dauka softwarea eta hardwarea erabili, kopia, aldatu edo hobetzeko.
- Eten digitalari eta bestelako diskriminazio teknologikoei aurre egiten die.
- Hainbat enpresari izugarriko botere ekonomiko, politiko eta mediatikoa ematen dien mendekotasun garestiak (bezero gatiaren fenomeno) ekiditen ditu.
- Lizentzien erosketen gastuak murrizten ditu.
- Tokiko enplegua eta herrialdeko informatikagintzako sektorea suspertzen ditu, multinazionalen monopolioetatik independente, autonomia ekonomikoa eta burujabetza teknologikoa bultzatuz.
- Segurtasun eta fidagarritasun handiagoak eskaintzen ditu, iturburu-kodea eta hardware-diseinua eskuragarri izateak erroreak detektatzeko eta zuzentzeko balio baitu, baita aplikazio-espioiak edota atzeko ateak ekiditeko ere.
- Partekatzea, besteei laguntzea, elkarrekin lan egitea, komunitatea sortzea edota pertsonen eskubide eta askatasunak defendatzea (esaterako, adierazpen-askatasuna edo informazioa eskuratzeko libertatea) bultzatzen ditu,

RESOLUCIÓN

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El movimiento de la informática libre defiende que el software (los programas o aplicaciones de ordenador o computadora), el hardware (los componentes físicos de los ordenadores) y la documentación informática deben poder ser usadas, modificadas y compartidas por cualquier persona u organización, sin restricciones técnicas, legales o económicas.

Entre las ventajas de la informática libre se encuentra:

- Total libertad para cualquier persona u organización para usar, copiar, compartir, modificar y mejorar el software y el hardware.
- Combate la brecha digital y otras discriminaciones tecnológicas.
- Evita la costosa dependencia respecto de algunas empresas (fenómeno del cliente cautivo), que les otorga un enorme poder económico, político y mediático.
- Reduce los gastos por adquisición de licencias.
- Fomenta la creación de empleo local y el desarrollo de un sector informático regional independiente de las multinacionales que monopolizan el sector, lo que promueve la autonomía económica y la soberanía tecnológica.
- Ofrece mayor seguridad y confiabilidad, puesto que el libre acceso al código fuente del software y al diseño del hardware permite detectar y corregir los fallos e impide ocultar aplicaciones espía y puertas traseras.
- Fomenta valores tan importantes y necesarios como compartir, ayudar a los demás, trabajar en equipo, crear comunidad y defender los derechos y libertades de las personas (como la libertad de expresión y el libre acceso a la información), además de incentivar el

baita ikastea, jakin-mina edo kuriosatea eta sorkuntza sustatu ere.

- Informazioaren iraunkortasuna bermatzen du, ez baitago software mugatu bati lotuta, zeinak edozein unetan erabilgarritasuna eten edo alda dezakeen.

2012ko urriaren 27an alkateak 1054/2012 Ebazpena eman zuen. Horren arabera, udaleko ordenagailu guztietan Microsoft Office pakete pribatiboa kentzea erabaki zen, kode irekiko LibreOffice paketea lehenetsiz eta, halaber, udalak sortzen dituen agiri guztiek ODF formatu irekia erabiliko zutela zehaztu zen. Migrazioaren prozesuak arrakasta osoa izan zuen eta sei urte beranduago inongo arazorik gabe iraun du.

2018ko martxoaren 20an informatikako arduradunak egindako txosten batean proposatzen da udaleko ordenagailu guztietan zaharkitutako Windows XP sistema eragilea aldatzea eta bere ordeztu Ubuntu ipintzea.

Horiek horrela, honako proposamena egiten da

EBAZPENA

Pasaiaiko Udalak informatika librearen aldeko hautua egiten du eta zehazki erabaki du:

- Gradualki eta ahal den neurrian software pribatiboa albo batera uztea eta bere sistema guztiak software librean ezartzea. Honen harira neurri zehatz hauek hartuko dira:
 - Pixkanaka-pixkanaka oraindik Windows XP erabiltzen duten ordenagailuetan sistema eragilea aldatu egingo da eta Ubuntu 16.04 ezarriko da (edo beste bertsio berriagoren bat).
 - Jabegoko programak erosiko dira soilik Kode Irekiko baliokide funtzionalik aurkitzen ez bada. Erabiltzaileen ordenagailuen sistema eragileak ez baldintzatzeko, jabegoko programak beste makina batzuetan instalatuko dira eta erabilerak urrutiko sarbideen bitartez izango dira.

aprendizaje, la curiosidad y la creatividad.

- Ofrece mayores garantías de perennidad de la información, ya que no depende de software restringido cuya disponibilidad puede cesar o cambiar en cualquier momento.

El 27 de octubre de 2012 se emitió la Resolución de Alcaldía n.º 1054/2012 por la que se decidió sustituir el paquete Microsoft Office (privativo) por LibreOffice (código abierto) en todos los ordenadores municipales, así como utilizar el formato abierto ODF en todos los documentos que se generasen en el Ayuntamiento. La migración se realizó con total éxito y más de seis años después se mantiene sin ningún problema.

El 20 de marzo de 2018 el responsable de Informática emitió informe en el que proponía la sustitución del obsoleto sistema operativo Windows XP de todos los ordenadores municipales por el sistema operativo Ubuntu.

A la vista de todo ello, se emite la siguiente

RESOLUCIÓN

El Ayuntamiento de Pasaia apoya la informática libre y en concreto acuerda:

- Abandonar gradualmente y en la medida de lo posible el software privativo y migrar todos sus sistemas a software libre. En este sentido se adoptarán las siguientes medidas concretas:
 - Progresivamente se sustituirá el sistema operativo de los ordenadores que todavía utilizan Windows XP y se instalará el sistema operativo Ubuntu 16.04 (u otra versión más reciente).
 - Sólo se adquirirán licencias de programas propietarios cuando no existan equivalentes funcionales en software de Código Abierto. Para no condicionar el sistema operativo de los ordenadores de los usuarios/as, los programas propietarios se utilizarán mediante accesos remotos a otras máquinas.

- Jabegoko programak makinaren atzipen fisikoa behar duenean (adib. periferikoak erabiltzeko, txartel-igorleak, radarra, etab.), dagokion sailean ordenagailu fisiko bat ipiniko da, baina monitorerik gabe. Baimendutako erabiltzaileei urrutiko sarbidea emango zaie makina horietaraino.
- Jabegoko programekin erabilera partekatua sustatuko da beti, erosi beharreko lizentzien gastuak murrizteko.
- Informatikako arloak kasu benetan bereziak aztertuko ditu eta kasuan-kasuan irtenbide egokiena bilatuko die.
- Pasaiaiko Udalak garatzen duen software guztia software libre modura argitaratuko du.
- Pasaiaiko Udalak sortzen dituen artxibo eta agiri guztiak formatu irekietan egongo dira. Horretaz gain, ahaleginak egingo dira Pasaiaiko Udalak argitaratzen duen informazio guztia lizentzia askeko programekin eskuragarria izan dadin.
- Informatikako gaiak erosteko orduan, eskatuko da Hardwarea sistema eragile libreekin bateragarria izateko.
- Kontratazio prozeduretan, informazioa euskarri informatikoan jaso behar denean, Pasaiaiko Udalak eskatuko du formatu estandarrak eta irekiak erabiltzeko. Arau orokor honen salbuespenak ongi zuritu beharko dira.
- Dekretu honen berri emango zaie IZFE S.A.ri, Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta baita Eusko Jaurlaritzari ere.
- Halaber, erabaki hau Udaleko Intranetean, web orrian eta sare sozialetan argitaratuko da.
- Cuando el software propietario necesite el acceso físico a la máquina (por ejemplo, periféricos como emisores de tarjetas, radar, etc), se instalará en el departamento un ordenador físico pero sin monitor. Los usuarios/as autorizados tendrán acceso a esa máquina mediante accesos remotos.
- En todos los casos, se fomentará el uso compartido de programas propietarios para minimizar los gastos por la adquisición de licencias.
- El área de informática estudiará los casos realmente excepcionales y les dará una solución individualizada.
- Todo el software desarrollado por el Ayuntamiento de Pasaia será publicado como software libre.
- Los archivos y documentos generados por el Ayuntamiento estarán en formatos abiertos. Asimismo, se procurará que toda la información publicada por el Ayuntamiento de Pasaia sea accesible con herramientas con licencias libres.
- En las compras de material informático se exigirá que todo el Hardware sea compatible con sistemas operativos libres.
- En los procedimientos de contratación donde se recepcione información en soporte informático, el Ayuntamiento de Pasaia exigirá que se utilicen formatos estándares y abiertos, salvo que se justifique la excepcionalidad del caso.
- Se dará traslado de este decreto a IZFE S.A., a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco.
- Asimismo, se publicará esta decisión en la Intranet del Ayuntamiento, en su página web y en sus redes sociales.

Pasaia, 2018ko martxoaren 12an

Izaskun Gómez Cermeño

Alkatea / Ei/La alcalde/sa

Unai Rekondo Perez

Idazkaria / Ei/La Secretario/a